

Cía Mago Hodei Magoa-k aurkezten du:

Ura *ren sekretuak*

Magia ikuskizun hezigarria,
oso parte hartzailea, non uraren
zikloa, bere garrantzia eta bere
erabilera desberdinak lantzen
dira.

30 eskola baino gehiago bisitatuta lehenengo
ikasturtean. Ikuskizun hau hurrengo lekuetako
eskoletan barrena ibili da jada:
Nafarroa, Gipuzkoa, Bizkaia, Errioxa, Kantabria, Araba
Asturias, Palentzia, Madril, Zaragoza eta Guadalajara.

Mago
Hodei
magoa

www.magohodeimagoa.com

Sinopsia

Ura, gure bizitzaren elementu garrantzitsuenetariko bat, jaiotzen garenetik erabiltzen dugu, baina, bere sekretu guztiak ezagutzen ditugu?

Ikasle eta irakasleek uraren zikloaren teoria, bere ezaugarriak eta eguneroko erabilpenak ezagutzen ditugu, baina, zergatik ez gaian sakondu? Zergatik ez gara gure zentzuen bidez bere magian eta bere ezaugarrien esperimendazioan murgiltzen? Ilusioarekin eta ikasteko gogoekin, dena da posible.

Ongi etorriak Cía Mago Hodei Magoa-ren lehenengo ikuskizun hezigarrira, non **modu entretenigarritz ikasiko dugu**; erakusten, dibertitzen eta gure **planetako funtsezko elementua** zein den gogorarazten duen magiaren bitartez.

Zer lantzen da?

Ekintzaren helburu nagusia ikasleriak **erantzukizun-kontzientzia** hartzea eta **uraren babesaren garrantzia** ulertzea da, ura baliabide natural agorri, eta era berean, bizitzarako ezinbestekoa bezala.

Hori dela eta, esperimendazioaren eta magiaren bitartez, ikasleek uraren ezaugarriak eta erabilpenak **ezagutzen** dituzte, bere arazoak **aztertzen** dituzte eta erabilera arduratsua egiteko **hausnartzen** dute. Gainera, magiari esker jende aurrean hitz egitea, errespetua, berdintasuna, partekatzea eta abar lantzen da. **Ikuskizunaren ardatz nagusiak** hurrengoak dira:

- 💧 **Uraren** zikloa eta bere egoera desberdinak.
- 💧 **Ura** zergatik ez den xahutu behar, modu justifikatu batez, erakustea.
- 💧 **Ura** edatearen garrantzia.
- 💧 Gure bizitzan **ura** erabiltzen dugun egoera guztiei buruz kontzientziatu.
- 💧 **Uraren** errespetua animalia eta landare askoren ekosistemaren parte bezala.
- 💧 **Ibaiak** eta itsasoak zergatik ez diren kontaminatu behar ulertarazi.

Nola lantzen da?

Magia egitea eta honen bidez irakastea, ikasgelako irakaspena osatzen duen heziketa modu kreatiboa eta berritzailea da.

Esperimentazioa, pertzeptzioa eta arrazoiketa jarduera hezigarri honen gakoak dira, zeina magoaren eta ikasleen arteko etengabeko interakzioarekin indartuta dago. Denek parte hartzen dute ikuskizunean, bai modu zuzenean, magia jokuetan lagunduz, bai zehar-moduan ere, magoak botatzen dituen zalantzei erantzuten edota egiten dituen okerrak zuzentzen.

Magiaren bitartez ikasleriak esperientzia denbora gehiagoz gogoratzea eta honi buruz hausnartu ahal izatea bilatzen dugu, pentsamendu kritikoaren agerpena lagunduz.



Gainera, esperientziaren bukaeran, umeei ikuskizunean ikasitako edukiak agertzen diren koaderno bat jasotzen dute. Honi esker esperientziaren oroigarri bat eraman ahal dute eta aurrerago klasean, ikuskizunean gertatutakoa gogoratuz, edukiak berriz landu ahal izateko tresna baliotsua izango dute.

Imaginatuz uraren zikloa esku artean ura hartu eta segundu gutxitan izotz batean solidotu egiten duen mago bati ikusten ikastea, edo eskuak ireki eta lurruna ateratzen dela, ura lurrunduz. Pentsatu ura agertu eta desagertzearen posibilitatean, edota marraztutako arraina egizko batean bihurtzen dela, eszenatokia edozein tokitatik agertzen diren eguzkitako betetzen dela, ume bati ukondo eta belaunetatik ura ateratzen zaiola, ikasleek magoari zuku edan beharrean ura edan behar dela aurpegiratzen diotela, edota bukaeran xaboi-burbuila ekaitza handi bat dagoela.



Zein ezaugarri ditu?

- 💧 **Ikuskizuna aurrera eramateko gu zure eskolara joaten gara, beharrezko guztia muntatzen dugu eta bukatzean espazioa jasota eta garbi uzten dugu. Jarduera egin behar den espazioan eszenografia, 1000Wko soinu-ekipoa eta beharrezko guztia muntatzen dugu.**
- 💧 **Edozein espaziotara moldatzen gara: gela batera, psikomotrizitate gelara, areto batera, gimnasia, pabilioi batera, eta abar. Ekintza egiteko ez dituzu ikasleak eskola kanpoko toki batera mugitu behar ezta autobus bat alokatu behar ere.**
- 💧 **Ikuskizunak 45 minutuko iraupena dauka, saio baten barnean programatzea erraztuz.**
- 💧 **Gaztelaniaz, euskeraz edota elebidun eskuragarri.**
- 💧 **Etortzen diren ikasleen adina antzekoa izatea eskatzen dugu, adin-tarte konkretura egokitzeko. Ikuskizuna Haur eta Lehen Hezkuntzarako ikasleriarentzat dago prestatua.**



Muntai desberdinak



Nolakoa da koaderno hezigarria?

Cia Mago Hodei Magoa-k aurkitzen du:

Ura ren sekretuak

Magia ikusizun hezigarria, oso parte hartzailea, non uraren zikloa bere garrantzia eta bere erabilera desberdinak lantzen dira.

Koaderno hezigarria

Mago Hodei Magoa
www.magohodemagoa.com

AURREZTU BEHARRA

Esia da, Itxaso eta ozeanoetan ur asko dago, baina GOGORATU! Ura guztiarentzat da eta ezin dugun guzta guk gastatu.

Es da ura bota ezta zahutu behar ere, aurreztu behar da. Adibidez, hortzak eta edukiak garbitzen ditugun bitartean txorrotu itxi dezakegu.

Ura aurrezteko beste modu batzuk bururaten zaizkizu?

URAREN ZIKLOA

Erakutsi izanik itxasoetako, ibaietako eta aintzirako ura burutzen dute. Ura lurrundu egiten da eta lurruna bezala zerura igo eta hodeiak sortzen dira.

Ura ezin egiten da euri, elur edo karrikabar moduan, tenperaturaren arabera, eta zirkulatu iten da.

Berria egiten duenean errepikatuz egiten da berri.

Marraskia begiratu gabe egiteko gai zara?

Solidotasun Solidotasun

Ura (Liquido) → Hoztu → Ura (Solido)

Lurrunketa Lurrunketa

Ura (Liquido) → Hoztu → Ura (Gasa)

OSASUNA

Landareak urarekin behar dira indartsu eta osasuntsu egoteko, eta? Gu berdinak gara. Edaten dugun ura gure gorputza funtzionaltzat eragiten du.

Adakizu zenbat ur edan behar den egun bakoitzeko? Gutxienez 2 litro, edo beste odu batera esanda: 8 edalontzi ur.

Adakizu eta freskagarriak gozatu daude, baina nolatan behin edateko dira. Eguneko zein unetan edango zenuke edalontzi bakoitzeko?

ANIMALIAK ETA LANDAREAK

Es aharatu, ura oso garrantzitsua da bertan bizi diren animalia eta landare garrantzientzat.

Zerbat denbora egon zaitzake arnasa hartu gabe? Gutxi, balez? Beraz, arnainak, ez dira gai urrik karga denbora asko egoteko, urrik esker arnasa hartu dezaketelako, beraz, esker.

Gu ezin badugu, arnainek nola hartu dezakete arnasa ur aspian?

GARRANTZIA

Ura oso garrantzitsua da, gure bizirik arabilten da. Zehat bururaten zaizkizu?

KUTSADURA

"Ni en nazi lehenengo edalontzi baimartuko." Gogoratzen duzu? Hori esan zenuen.

Bai arnainak bai landareak ur garbi batean bizi nahi dute, zikinakirik gabekoa. Denek batera ibaiak eta itsasoak garbi egoteko bidea dezakegu, zaborrik lurerra ez botatzen (ibaletara kristen dira eztekin bide) edo hondartzara joaten garenean poltsa eta botila gurtiak jasotzen.

Ibaiak eta itsasoak ez zikintzeko beste modu batzuk bururaten zaizkizu?

URREZKO arauak

- 1 Ura ez da bota behar
- 2 Ura edan behar da
- 3 Ez dira ibaiak eta itsasoak zikindu behar

Gogoratu, URAREN URREZKO 3 ARAUAK jarraitu behar dira.

magohodemagoa.com - 646 236 649 - info@magohodemagoa.com

Ikuskizuna argazkien bidez

Ikuskizuna argazkien bidez



Ikuskizuna bideoan



<https://www.magohodeimagoa.com/urarensekretuak.com>

<https://www.youtube.com/watch?v=yHFXhGvTUu8>



Iritziak

*Posta elektronikoko bidez eskatutako iritziak eta hirugarren pertsonara (edo euskerara kasu batzuetan) moldatuak. Gure bezeroekiko konfidentziasuna dela eta bakarrik izena eta ordezkatzeko duten kargua agertuko da, abizenak edo Datuen Babesaren Legea urratu dezakeen beste daturik eman gabe.

Egia esan, hasieran zalantzak izan genituen, magia ikuskizuna izanda ez genekigun haur tixkientzako ikuskizuna izango zen. Azkenean bikaina izan zen, ikasleak liluratuta bukatu zuten eta ez genuen arazorik izan.

Teresa, hirugarren zikloko koordinatzailea

Haur Hezkuntzako bi eskoletako 250 ikasle ginen, primeran pasa genuen. Iraun zuen 50 minututan ikasleek ez zuten ikuskizunetik begirada kendu, Hodeik denbora guztian galderekin eta bromekin partaide egiten baititu. Bi aste geroago txorrota irekia uzten genuenean oraindik aurpegiratu egiten ziguten.

Luis Javier, ikastetxeko zuzendaria

Atsegina da jarduera desberdina ikustea. Lantzen diren edukiak zabalak dira, gure Haur Hezkuntzako ikasleak lantzen dutenetik seigarren mailakoak egiten duteraino iristen dira. Gainera, magia oso originala da, ez ditut jokuak lehenago ikusi eta bikainak dira erakusten saiatzen garen guztia uler dezaten.

Marisa, ikastetxeko zuzendaria

Hiru urte daramagu eguberri aurreko azken egunerako magoak ekartzen. Aurten eskolarekin hitz egin genuen ekintza hau egiteko eta irakasleak klasean azaldu zituzten ikuskizunean landuko ziren gaiak. Ikasleentzako ez zen batere aspergarria izan, guztiz alderantziz. Beraien sentsazioa mago normal baten aurrean egotearena zen, baina gainera gauzak ikasten ari ziren. Gainera, ematen dizkieten koadernoak irudiz hornituak daude entretenigarriak izan dadin.

Mario, guraso elkarteko lehendakaria

Kontaktua

Cía Mago Hodei Magoa

info@magohodeimagoa.com

646 236 649

www.magohodeimagoa.com

